



BIZITEGI ERAIKINA
C MAILA**HONDARRIBIA 2**

Jose M. Yturriaga; 1962.

Deskribapena

Kantoiko etxea. Beheko solairua, goiko sei solairu eta atiko atzeraemana du. Solairu bakoitzak jatorrian etxebizitza bakarra du, hiru arlotan bereizten dena: egongelak, logelak eta zerbitzua. Azalera handiko etxebizitza da. Zati bakoitzak kokaleku zehatza du, eta eskailera eta igogailu gunearen inguruan eraztun ibilbidea ahalbidetzen du. Bi sarbide independente du, eta zerbitzuaren eta egongelen arteko zuzeneko komunikazioa, eskailera eta patio arteko zubi moduan. Hormigoizko egiturak euskarri banaketa du, eta ezin hobe konbinatuta dago banaketekin eta fatxadarekin. Fatxadak metalezko sare printzipio orokorra du abiapuntu, hegaletan edo mailak, karelak eta baoetako buruak marrazten eta modulutzen dituzten lineetan. Hori abiapuntu izanik, leihoak aurreratzen edo atzeratzen dira, balkoiak osatuta. Zabaldurako arkitektura modernoaren adibide nabarmena, 1925-1965ko etxebizitza modernorako Docomomo Iberiar Erregistroan "intereseko eraikin" gisa barnean hartzen dena.

Babes erregimena

1. Babes erregimen orokorra.
Plan Berezi honen C babes mailan sartzearekin loturikoa.
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihalek, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira. Hori guztia, gaur egungo egoera irizpide horiekin bat ez badator, eta babestu beharreko arkitekturako proiektuarekin bat etortzeko arrazoiengatik mantentzea justifikatzen ez bada.
2. Berariazko babes erregimena:
 - A. Babesetik kanpo utzitako fatxadako elementuak edo zatiak: ez.
 - B. Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: ez.
 - C. Esku hartzeko murrizketa partikularrak: ez.
 - D. Nahitaezko lehengoratzak:
 - * Atikoko solairuko beirazko itxiturak ezabatzea.
 - * Hala badagokio, aurreko aurreikuspenak betetzeari lotutako gainerakoak, erregimen orokor hori arautzen dutenak barne harturik.